



**BARREN**  
TOKIKOM



# Danborrada batzordeari agur



# IBILALDIA 2016 - DURANGON - Maiatzak 29, igandea

## Autobusa antolatu dugu Bizkaiko ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko.

Irteera: 10:00 (Sigmako autobus-geltokia) - Itzulera: 20:00 - Prezioa: 10 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 9)  
Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da; azken eguna: maiatzak 26. (autobusa irtetzeko gutxieneko kopurua 30 pertsona).

**dagigun!**

IBILALDIA 2016  
DURANGO

Antolatzailea



Babeslea



## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO-1eko matrikulazio aldia zabalik maiatzaren 16tik 27ra

HHO (2016an jaiotakoak) irailean eta urrian hasteko.

HH 1 (2015ean jaiotakoak) irailean hasteko.



elgoibar ikastola

[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
943 744441



Ordutegi zabala: 07:30-19:30 / Jai-zubietan eta oportretan irekita



**federópticos**  
Ikus

**audiocentro**  
Ikus

Honako sintoma  
hauetakoren  
bat baduzu?

- Buruko mina
- Ikusmen-nekea
- Begietako azkura
- Begi-keinua
- Hatzamarrarekin irakurtzea

Bi begien azterketa  
eginez, antzeman  
dezakegu edozein  
ikusmen-disfuntzio,  
eta tratamendua  
eman diezazukegu.



Jose Artetxe, 10  
Tel: 943 15 75 74 - AZPEITIA

Zigordia kalea, 7  
Tel.: 943 133 151 - ZARAUTZ

San Bartolome kalea, 10  
Tel.: 943 743 734 - ELGOIBAR



**AZALEA** Edergintza

M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da,  
erretiroa dela eta.

Jon Aranao  
Guillermo Torres  
**Elgoibar**  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Asteleheneratik ostirakera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopiardegi zerbitzua eskatzen.  
Denak orduei hartzeko.

**A. Garate**

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua


[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**



NEREA GURRUTXAGA



*“Estereotipoek gehiago kezkatzen naute umeek gorpuzten dituztenean, inudeen irudia txertatzean adibidez”*

**K**aixo, Nora! Bueltan dira Trinitate jaiak, eta normalean ikasleek liburu artean harrapatzen gaituzten arren, beti hartu ohi dugu tartetxo bat kalera irten eta lagunekin afari eder bat egiteko! Hala ere, niretzat bada jai hauetan emozio gazi-gozoak sortzen dizkidanik ere. Bai, Nora, danborradaz ari naiz. Badakit herritar askorentzat ekintza garrantzitsua dela, ondo pasatzeko eta musikaz gozatzeko aukera, baina niri betaurreko moreak kentzea geroz eta gehiago kostatzen zaidanez, hobetzeko asko dagoela uste dut. Oraindik zain nago kantinerook noiz agertuko, soldadu edo sukaldari neskak agertu ziren moduan. Batzuek esango dute ez dagoela mutilik prest horretarako, eta hori hausnartzeko motiboa ere badela uste dut, zein da kantinerak jartzearen helburua? Horren kontrapuntua gastadoreak dira, gizonek bakarrik betetzen baitute paper hori. Zer dago rol horien atzean? Danborrada ikusten dudak bakoitzean bururatzen zaizkidan galderak dira, Nora, kantineren mugimendu eta itxura

dotorea gastadoreen irmotasun eta protagonismoarekin alderatzen dudanean. Genero estereotipoak indartzen dituztela uste dut, eta danborrada parekidea izateko, ez dela nahikoa emakumeen parte-hartzea, kontuan hartu behar baita zein den horrelako ekintza garrantzitsuetan izaten duten rola eta garrantzi maila.

Esandako estereotipoek gehiago kezkatzen naute umeak direnean gorpuzten dituztenak, kasu honetan, inudeen irudia txertatzean, adibidez. Mezu desegokia igortzea iruditzen zait neskak haurra besoetan dutela jartzea horren txikitatik, artzain jantzitako mutilen ondoan. Ez dakit zuri, Nora, baina niri adin horretan aukera eman balidate, nahiago izango nukeen galtzak jantzi eta ardiak zaintzea, soineko horrekin haurrak zaintzea baino. Aukera ematen al diegu zer izan nahi duten erabakitzeke? Tradizioa jarraituko bagenu, emakumeek ezingo genuke danborra jo, beraz, gizartea aldatzen doan heinean, zergatik ez egokitu jaiak horretara?



NORA KORTABERRIA

*“Ea haurren kasuan ere rol nahasketa ikusten dugun”*

**A**upa, Nerea! Ate joka ditugu, bai, Trinitate jaiak, eta honen harira azkeneko txanpa estresagarrian pare bat egunez deskonektatzeko aukera. Egia esan niretzako Trinitate jaiak beti izan dira udararen sarrera. Eguraldia hobetzen hasi da, argitasuna areagotzen, kaleak berpizten... Alaitasuna da nagusi, eta ez dago honi jai batekin hasiera ematea baino hobirik! Baina egia esan zure galderek beste ikuspuntu bat ikusarazi didate.

Orain arteko Trinitate jaiak danborradarekin lotzen nituen bete-betean, honen atzean dagoenaz ohartu ere egin gabe. Tradizioak beti izan dira tradizio, eta normaltasunez hartu ditugu, aldagaitzak izango balira bezala. Dena dela, azken urteotan gizartea aldatzen doa, esan duzun bezala, eta honekin tradizioak ere pixkanaka moldatzen hasi dira, oraindik aurretik bide luzea dugun arren.

Horregatik, eman beharreko pausu garrantzitsuena jendea ohartaraztea da, eta sarri hau da zailena. Gu geu ez gara egoera bati ikuspuntu ezberdinetatik begiratzeko gai, eta gainera, besteen laguntzaren beharrik ere ez dugu ikusten maiz. Baina oker gabiltza. Horren arrunta deritzogun zerbaiti ez diogu trabarik ikusten, eta horregatik, zure betaurreko more horiek bezalakoak banatu beharko genituzke guztiok eskuartean izan ditugun.

Beraz, proposamen bat luzatu diezaiekegu geure irakurleei eta ondoren, hauek ere mezua zabalitera gonbidatu, betaurrekoak erabiliz. Sexu ezberdinetako soldadu eta sukaldari horiek egin zuten bezala ea aurten kantinero elegante edo gastadore irmo horien papera gizon zein emakumeek betetzen duten. Eta bide batez, haurren kasuan ere rol nahasketa ikusten dugun. Batek daki, agian trostan dabilen zaldiairen gainean guztion begiradak harrapatuko dituen kantineroa izango da aurten!



JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



## Hitz zaharkituen zakua

Ez da denbora asko kartillarekin banketxeko leihatilara joatea dirua ateratzeko era bakarra zela, eta egindako mugimendu guztiak eta banketxean geneukan dirua bertan islatzen zirela. Larritasunak eta komeriak izaten ziren norbait kartilla galtzen bazuen... Txartelak agertu ziren eta edozein kutxazainetan dirua ateratzeko erraztasuna, eta internetekin batera, banka elektronikoa. Klik

bat eginda, gure kontuen xehetasunak jakiteko aukerarekin batera, kartillaren erabilera murrizten joan da.

Gaur egun, smartphonen garaian, aplikazio berriak sortu dira, telefono mugikorra soilik eskuan izanda kutxazainetan dirua ateratzeko eta denda askotan erosketak egiteko, txartela aldean eraman beharrik gabe. Ni neu ohitu naiz operazio hauek mugikorrarekin egitera, gero eta plastiko zati gutxiago eramatera.

Poliki-poliki tresna berri hauek era orokorrean erabiltzen hasiko dira, eta ez bakarrik kartillak, baizik eta txartelak ere baztertuko ditugu eta urte batzuk barru gazte batek harridura aurpegiarekin begiratuko gaitu kreditu txartela aipatzen diogunean. Agian, etorkizunean, billete eta txanpon hitzak ere hitz zaharkituen zakuan sartu behar harko ditugu.

*“Aurrerapen berriak  
azaltzen diren neurrian  
tresna eta  
hitz batzuk zaharkituta  
gelditzen dira”*

**D**uela aste batzuk bezero batek bere ilobari kontu bat irekitzea erabaki zuen, hilero diru kopuru bat sartu eta aurrezteko asmoz. Izebak, ilusio handiz kartilla bat zabaldu ziola esan zionean, iloba zur eta lur gelditu zen, kartilla bat zer zen arrastorik ere ez baitzeukan. Bizitzako eremu gehienetan bezala, teknologia eta aurrerapen berriak azaltzen diren neurrian, konturatu gabe tresna eta hitz batzuk guztiz zaharkituta gelditzen dira, batez ere gazteentzat.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
Euzko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► MAIATZAK 29, FAMILIA EGUNA

Atxutxiamaikak eta Ludotekak Elgoibarko umeak eta gurasoak gonbidatu nahi zaituzte hilaren 29an Idoroben (San Pedro) ospatuko dugun egunera. Kiribilduz egitasmooaren baitan (Elgoibarko Udalaren laguntzaz) ari gara egun hori prestatzen, ilusio handiz gainera.

Euskaraz denek batera egun on bat pasatzeko gonbitea egin nahi dizuegu familiei. Ez dio axola gurasoren batek ez badaki euskaraz edo erdipurdi egiten badu. Garrantzitsuen da euskararekiko jarrera proaktiboa izatea eta ondo pasatzeko gogoia izatea.

Ahal dutenak oinez igoko dira, mendiz, Sigmako bidetik; Ander Izagirre eta Haritz Arrieta hezitzaileek bidean aurkitutako fauna eta floraren sekretuak erakutsiko dizkigute. Ezin dutenak oinez joan, autoz igo ahal izango dira, jakina.

Egun betea lotzen ari gara. Goizean hamaiketako eta familientzako jolasak izango dira. Bazkalordurako mahai batzuk jarriko ditugu frontoian eta familia bakoitzak eramandako bazkaria

jango du. Bazkalosteko giroa trikitilari gazte batzuek alaituko dute (dantza egin nahi duenak egin dezala). Arratsaldean Niala magoaren emanaldia eta familien arteko merienda partekatua.

Ekintza doan izango da. Ludotekan, Elgoibarko Izarrako bulegoan edo [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus) webgunean eman dezakezue izena maiatzaren 25a baino lehen, batez ere dena ondo antolatzeko.

### Atxutxiamaika eta Ludoteka

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:


1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



### II. URTEURRENA

## Lolita Mondragon Sanchez

2014ko maiatzaren 17an hil zen. Haren oroimenez II. urteurrenako meza izango da, zapatuan, maiatzak 21, arratsaldeko 18:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



## Eduardo Perez Garcia

2016ko maiatzaren 18an hil zen, 87 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Ane Beitiak Eudeleko zuzendaritzan jarraituko du datozen lau urteotan

Eudelek astelehenean egin zuen batzar orokorra Elgoibarko Herriko Antzokian eta datozen lau urteotarako zuzendaritza karguak berriro zituen, EH Bildu udalen elkartearen integratu ondoren. Getxoko alkate Imanol Landak jarraituko du presidente, eta Elgoibarko alkate Ane Beitiak ere batzorde eragileko kide izaten jarraituko du, baita Gipuzkoako Lurralde Batzordean ere.

“Gaur, sortu zenetik Euskadiko Udalen Elkarteak, Eudelek, izan duen xede historikoetako bat bete da: desberdinak direnen arteko bizikidetzak. Organo berriek ordezkaritza plurala dute, indar guztien lankidetzari eta adostasun-bonordateari esker”, adierazi zuen Landak.

Eudelek bi presidenteorde izango ditu, Irungo alkate Jose Antonio Santano (PSE) eta Errenteriako alkateorde Garazi Lopez de Etxezarreta (EH Bildu). Batzorde eragileko hamabost kideetatik zazpi EAJkoak dira, lau EH Bildukoak, bi PSEkoak, eta PPkoak eta talde independenteetakoak bana. Era horretan zuzendaritza "integratzailea" osatzea izan da erakundearen asmoa.



Imanol Landaren esanetan, EAEko Toki Erakundearen Legea martxan jartzea izango da Eudelen berehalako erronka nagusia. “Desiratutako Lege honek argi zehazten du udalen eskumen markoa, eta udal finantzaketarako beharrezko mekanismoak ezartzen ditu”, esan zuen. Udalerrien espazioa zehaztea, eta tokiko autogobernuerako berezko marko bat garatzeko eskumena eta gogoia erakustea ere Eudelen esku dagoela gaineratu zuen.

“Gure balioak hauexek dira: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, oinarritzko eskubide moduan eta demokraziaren funtsezko balio gisa. Berdintasunaz gain, honako balioak ere nabarmentzen ditugu: etika eta erakunde osotasuna, gardentasuna, parte-hartzea eta herritarrekiko hurbiltasuna”, esan zuen. Euskara ere funtsezko balioa dela nabarmendu zuen Eudeleko presidentek.

## Maalako biribilgune itxiko lanak amaituta daude joan den barixakuaz geroztik



Maalan lehen zegoen biribilgune irekia itxeko lanek hilebete baino gutxiago iraun dute. Maiatzaren 13an amaitu zituzten lanak. Lanen kostua 129.050 eurokoa izan da eta Gipuzkoako Aldundiak egin du inbertsioa. Pulimentos Pacoko semaforoa botoia sakatuta aktibatzen denez, oinezkorik ez denean trafikoak ez du etenik izango.



## Ingurumenari buruzko proposamenak eman dizkiote Elgoibarko ikastetxeetako ikasleek alkateari egunean egindako pleno txikian

Herri eskolako, Institutuko eta Ikastolako 40 ikaslek ordezkari lanak egin zituzten atzo, eguena, eta Udaletxera jo zuten, ingurumenari buruz ikasturtean zehar egindako lanaren berri alkateari ematera eta, bide batez, proposamen batzuk egitera. Ane Beitia alkateak harrera egin zien ikasleei.

Besteak beste, ikasturte honetan herriko gune berdeak eta parkeak aztertu dituzte Elgoibarko ikasleek, Agenda 21 egitasmoaren baitan. Bide batez, animalia inbaditzaileen gaineko azterketa ere



egin dute (liztor beltza...). Egoeraren diagnostikoa egin ostean, ikasleek Udalbatzan aurkeztu zituzten ateratako ondorioak, baita euren eskaera eta proposamenak ere. Besteak beste hauek: espezie inbaditzaileen kontrol zehatza egitea eta, horretarako, herriarrek osatutako lan-taldeak eratzea; liztor beltzari aurre egiteko neurriak hartzea; Udalak aurrera eramaten dituen lanetan bertako espezieak lehenestea; adin guztietara egokitutako parkeak eraikitzea; eta txorientzat jantokiak eta habiak ipintzea.

## Datorren asteburuan robotikari buruzko feria izango da Leku Eder parkean

Robotika Dibertigarria feria antolatuko du Elgoibarko Udalak maiatzaren 28rako, Leku Ederren (11:30-13:30). Herriko ikasle gazteek Tailer Teknologikoetan egiten duten lana bistaratzeaz gainera, gailu elektronikoen programazioa eta robotikari buruzko tailerrak eskainiko dituzte, eta *Minecraft* bideojokoari buruzko hitzaldia ere antolatu dute, gurasoen beldurrak uxatzearren.

Bestalde, Claudia Arrillaga eta Naroa Rodriguez elgoibartarrek (argazkian) lehen saria eskuratu zuten Robotikaren Munduko Olinpiadetan. Lehiaketa hau Bilbon egin zen maiatzaren 8an. Roboten bidez arazoei irtenbideak ematea da lehiaketaren helburua. Aurten zaborra kudeatzeko irtenbideak topatu behar zituzten.



Udalak eta ikastetxeek diru laguntza hitzarmena sinatu dute

Elgoibarko ikastetxeek eta Udalak hitzarmena sinatu zuten eguaztenean, 2015/16 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. 33.178 euroko diru-laguntza jasoko dute ikastetxeek.

Hitzarmenean Elgoibarko Udaleko Ongizate, Euskara, eta Haur eta Gazteen Sustapenerako sailek eta Elgoibarko eskolek (Ikastola, Herri Eskola, Institutua eta Meka) parte hartu zuten. Ikastolak 9.553,84 euroko laguntza jasoko du, Herri Eskolak 6.151,73 eurokoa, Institutuak 10.857,21 eurokoa eta Mekak 6.615,22 eurokoa.

Aurten 3.747 euro gehiago bideratuko du Udalak ikastetxeak diruz laguntzeko (aurreko ikasturtean 29.431,51 eurokoa izan zen).

Diru-laguntza horietaz gain, Udaleko Berdintasun Sailak eta Sustapen Ekonomiko Sailak diru partida bat izendatu dute eskoletan sail horien helburuekin bat datozen ekintzak abian jartzeko.

## Jakiak bilduko dituzte hilaren 27 eta 28an, Elikagaien Bankura bidaltzeko

Elgoibarko Gizarteratze Mahaiaik janari bilketa egingo du maiatzaren azken barixaku eta zapatuan (27 eta 28). Gizarteratze Mahaia osatzen duten taldeek eta erakundeek herritarrek animatu nahi dituzte parte hartu dezaten. Bilketa BM supermerkatuan izango da, 09:30etik 21:30etara. Elgoibarren jasotako jakiak Elikagaien Bankuak Bergaran duen egoitzara eramango dituzte, zonaldean premia duten familien artean banatzeko. Joan den urtean Elikagai Bankuak Elgoibarko 200 bat familien artean banatu zuen janaria.

Bilketarako boluntarioak behar ditu Gizarteratze Mahaiaik. Ordutegiak boluntario kopuruaren arabera antolatuko dituzte. Izena emateko Elgoibarko Gurutze Gorrira jo beharra dago (Aita Agirre plaza 3, behe). Bestela, 943 743 864 telefono zenbakira deitzeko edo [elgoibar.social@cruzroja.es](mailto:elgoibar.social@cruzroja.es) helbidera idazteko aukera ere badago.

## Giro onean amaitu dira Semana das Letras Galegas jaiak



Casa Cultural de Galiza elkarteak Semana das Letras Galegas jaialdia ospatu zuen joan den asteburuan. Aurten ere giro ona nagusitu zen asteburu osoan zehar. Elgoibartarrek eta inguruko herrietatik gerturatu zirenek Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera izan zuten. Banda de Gaitas de Piloño gaita-jole taldeak eta Haritz dantza taldeak ukitu polita eman zioten jaiari. Bitartean, sustraiak Galizian dituzten haiek elkarrekin partekatu zuten jai-giroa.

## Maiatzaren 29an erraustegiaren kontrako giza-katera joateko deia egin du Elgoibarko EH Bildu

EH Bilduk maiatzaren 29rako antolatu den giza-katean parte hartzeko deia egin du. Donostiako Onkologikoa eta Gipuzkoa Plaza lotu nahi ditu giza kateak, erraustegiak osasunean izan litzakeen kalteez ohartarazteko. EH Bilduk giza-katera joateko txartelak banatuko ditu bihar, zapatua Kalegoenen (11:30-13:00), eta informazioa banatuko du. Koalizioak iragarri du Elgoibartik autobusa izango dela eta Debabarrenakoek ospitale inguruan egon beharko dutela katea osatzen.

## Edoskitzeari buruzko beste saio bat izango da datorren asteburuan

Maitasunez Hezi elkarteak edoskitzeari edo laktantziari buruzko beste saio bat antolatu du. Maiatzaren 28an (zapatuan) Elgoibarko Kultur Etxera joateko deia egin du elkarteak. Ama direnak, haurdunak edota amatasunaren inguruko gaietaz interesa dutenak gonbidatu ditu. Edoskitzearen inguruko esperientziak partekatuko dituzte eta taldean sortzen diren gaietaz arituko dira. Joateko interesa dutenek aldeztu aurretik abisatzeko eskatu dute ([maitasunezhezi@hotmail.com](mailto:maitasunezhezi@hotmail.com) edo 636 916 556 edo 665 733 809).

## Errigoraren informazio mahaia jarriko dute bihar Kalebarren plazan

Errigorak *Eskutik eskura* kanpaina abiatu du. Nafarroako hegoaldean ekoiztutako kontserbak ekarriko dituzte Elgoibarrera. Eskaerak maiatzaren 24a baino lehen egin behar dira [errigora.eus](http://errigora.eus) helbidean. Dena den Elgoibarko taldeak informazioa zabalteko eta eskariak bideratzeko mahaia jarriko du bihar, zapatua, 11:30etatik 13:00etara Kalebarren plazan.

## EH Bilduk bilera egingo du asteartean ekaineko hauteskunderi buruz

Ekainaren 26ko hauteskunderen harira, Elgoibarko EH Bildu koalizioak jakinarazi du bilera antolatu duela datorren martitzenean (maiatzak 24). Koalizioak dei egiten dio bere militantzari parte hartu dezan. Bilera Kultur Etxeko Sotoan egingo dute 19:00etan. Espainiako Gortetako Hauteskunderen inguruko klabeak, lan banaketa eta abarren gainean jardungo dute.






Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Pintadak:** "Gustu txarreko pintada xenofoboak agertu ziren domeka goizean Kalegoen Plazan eta Maalan. Eta herritar guztiok horren kontra azaldu behar dugu. Zergatik bereiztu jendea jaiolekuaren arabera? Denok ez gara ba pertsonak? Pintadaren egileak dio hau ez dela Espainia... gaztelaniaz! Patetikoa benetan".



**Lekuederren ganberro:** "Lekuederren bizi naiz eta haserre nago azken aldian parkean ikusten ditudanekin. Lorategiak txukun jarri dituzte eta zaindu beharrean ume eta nerabe asko ganberro moduan ibiltzen dira bizikletekin, korrika... haien gainean. Gurasoek ere ez dute arretarik jartzen. Errespetatu ezazue ingurua berritzeko lanean ibili direnen ahalegina. Jolaserako beste toki batzuk badaude horrela ibili gabe".



**Autobus ordutegia:** "Autobusez ibiltzen naiz eta Ermutik abiatu eta Azkoitiarantz doan autobusaren bi ordutegi ezberdin daude Urazandiko geltokian (King-Kong). Horrek hainbat bidaieriri nahasteak sortu dizkie. Beste geltoki batzuetan egin dituzte zuzenketak eta horretan ere oker da goena kentzea eskatuko nuke. Era berean geltokia txukuntzea bai ordutegiei dagokienez eta bai itxuraren ere".



**Ghorezko jubenilen entrenatzaileak:** "Gurasoek eta jokariari eskerrak eman nahi dizkiegu CD Elgoibarko Juvenil taldeko entrenatzaileei. Eneko Arrona eta Mikel Garcia txalotu nahi ditugu, denboraldian zehar egin duten lan estimagarriagatik. Zorionak eta eskerrik asko".

**Emusik jaialdi ederra:** "Txalotu nahi nituzke Elgoibarko Udala eta Inazio Bereziartua Musika Eskola Emusik ekitaldia Elgoibarrera ekartzegatik. Bikaina izan zen eta bi ordu eta erdiko saioa bizkor pasatu zen mota desberdinetako taldeen musikaz gozatu genuelako. Ea animatzen diren eta urtero horrelako saio bereziak antolatzen saiatzen diren. Mila esker antolatzaileei!"





## “Lehengo Trinitateek orain beste izen bat daukate: danborrada”

Trinitateak dira asteburuan eta jaiak danbor hotsarekin etorriko dira. Zapatuan, nagusien danborrada, orain arte ez bezala, arratsaldean egingo dute aurten. 19:00etan abiatuko dira plazatik danbor eta barril joleak, kantinerak, kapitain eta erregina... eta karroza. Herriz herri jaietan jatekoa saltzen ibiltzen den furgoneta bat irudikatuko dute aurten. Lan mordoa egin du hamaika urtean danborrada antolatzen duen batzordeak eta aurten danbor hotsekin batera agur esango diote antolakuntzari. Batzordeak hamar lagun baditu ere, eskertuko lukete taldeen arteko elkarlana. Rosi Azkarreta, Maribi Narbaiza, Ainhoa Zapata, Begoña Arizmendi, Begoña Gil, Iñigo Legorburu eta Juan Carlos Arrieta batzordekideekin izan gara urte hauetako danbor hotsak gogoratu.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

### ► DANBORRADAKO BATZORDEA

♦ **Orain danborradaren antolaketa lagako duzue. Nola hasi zineten?**

**Juan Carlos:** Danborrada urte askoan egin izan da eta ni parte hartutakoa nintzen. Gure aurreko danborradakoek ez zuten inolako proiekturik prestatu, 40

lagun elkartu, pare bat entsegu egin eta ondo pasatzera joaten ziren. Gure batzordea 2005ean hasi zen. Orduan zuzendari zen Andoitz Agirregomezkortak laguntza eskatu zigun eta kuadrillatik kuadrillara danborradan jotzea proposatu

150 lagun batu genituen. Herritarren batzorde bat prestatu genuen eta poliki-poliki lan pila bat egin dugu. Beraiek tarte horretan ez balute jarraitu gu eta danborrada ez ginatke hemen egongo, eta hori eskertzekoa da. Gure taldean jende





gehiago ere egon da eta besteak beste hasieran Jabi Lazkanok egindako lana aipagarria da.

**Iñigo:** Aurrekoekin nik jo egiten nuen eta harremanetan hasita zuzendariak laga zuenean bere tokia ere hartu nuen.

◆ **Zergatik lagako duzue batzordea?**

**Juan Carlos:** Ziklo bat amaitu da eta jende berria sartzea aberasgarria izan daiteke. Egindakoa herri mailan ondo egin dugula uste dugu batzuri agian kanoi eta eskopeten kontua, esaterako, ondo ez iruditu arren. Hemendik aurrera beste modu batean parte hartuko dugu.

◆ **Jendeak ba al daki danborrada antolatzen zenbateko lana dagoen?**

**Ainhoa:** Gauza guztietan bezala jendearen araberakoa da, batzuk baloratzen dute eta besteek ez.

**Rosi:** Ardura handia ematen du, ia urte guztiko lana delako, besteak beste dirua lortzeko: abuztuaren amaieran hegaluze-

## **Gazteenak 14 urte, kantinera batzuek 70etik gora eta kanoidunak 80 zituzten urte batean**

arekin, loteriarekin... Garagardo azoka egin genuen danborrada girotzeko eta urte batean egun berean egin genituen ardo dastatzea eta danborrada eta gehiegizkoa zen.

◆ **Askotariko jendeak parte hartzen du danborradan, ezta?**

**Juan Carlos:** Bai eta kanpotik danborrada ikustera etorritako jendea, Donostiatik esaterako, harritu zen urte batean gazteenak 14 urte, kantinera batzuek 70etik gora eta kanoia manejatzen zutenak 80 zituztela ikusita. Danborradaz gain garagardo azoka ere antolatu ge-

nuen eta aberasgarria izan zen lau belaraldi elkartuta ikustea jan-edanean zein dantzan. Jendeak borondatea jarrita lortzen da talde bakarra sortzea.

**Begoña:** Orain, 18an jarria dugu muga, baina oso polita da hainbeste adinetako jendea, kuadrilla ezberdinetakoak denak batera ikustea. Lehen ezagutu ere egiten ez genituenak orain ia kuadrillakoak modukoak dira.

◆ **Urtero gai zehatz baten inguruan antolatzen duzue danborrada. Erraza da aukeratzea?**

**Iñigo:** Ni gehienbat musikaz arduratu naiz, baina gainontzekoa lanaren %80 da, beraz, ez da erraza. Arrantza, base-ria, ardoa... aukeratu ditugu eta gero karroza egiteak ere lan handia du.

**Juan Carlos:** Gai oso politak izan ditugu. Ardoarena egin genuenean karroza ederra izan zen mahatsarekin. Euskal Jaien urteurrenean, esaterako, guk arrantza





## *Guk batzordea lagako dugu eta jende saltseroa eta festazalea sar dadin nahi dugu*

geneukan gai moduan, beraz, *kaxarranka* sartu genuen danborradan eta jende asko ikusi genuen plazan malkoa dariola. Urte hartarako karroza, itsasontzia, zailena izan zen. Bi ohol xafarekin egiteko asmoa geneukan hasieran, baina gero handira joan zen.

**Maribi:** Gipuzkoa, Bizkaia eta Kantabria pasatu genituen eta bi itsasontzirekin bat egin genuen.

**Juan Carlos:** Getariako Udalekoekin harremanetan jarri ginen Elkanoren lurreratzeari irudikatu behar zutelako eta ez zezaten pentsa beraien kopia egiten ari ginela. Ikustera etorri eta harrিতa gelditu ziren. Gero Getarian erabili zuten ekitaldi berezi batean, eta ondoren, Iruñeko gizon batek erosi zuen Gabonetako parke batean pirata itsasontzi moduan jartzeko.

### ♦ Aurtengo gaia zein izango da?

**Juan Carlos:** Aurten sukaldaritzarekin lotu dugu. *Masterchef* programak sona du, eta herriz herri jatekoa saltzen duten furgonetak ere. Guk horrelako bat aterako dugu, baina ez kanpotik ekarria.

### ♦ Karrozekin bai, baina orduarekin ere izan dituzue hainbat buruhauste.

**Maribi:** 00:00etan, 23:30ean hasi zen eta beranduegi amaitzen zela zioten. Arratsaldean egitea proposatu zuten eta aurten egingo dugu aproba. Jendeak dio umeekin geldituko direla.

**Juan Carlos:** Batzuei gauekoa eleganteagoa iruditzen zaie argiekin...

**lñigo:** Hasieratik gauzak serio hartu genituen, eta pentsatu genuen Trinitate Eguna danborradarekin 00:00etan hastea kutsu solemne hori emanez.

### ♦ Hainbeste urtean gauza berezi asko gertatuko ziren danborradan, ezta?

**Maribi:** Lehen urtean figuranteen erremintak ahaztu genituen.

**Begoña:** Kalesarekin zaldiak ere aztoratu izan dira.

**Juan Carlos:** Afaritan danborradako partaideei aurkezten dizkiegu kalesa eta zaldiak. Behin emakume eibartar bat jarri zen lehena kalesan eta beraiek eskatu arren ez zitelako jartzen esan zuen. Kalesa bi ezkontzatan ere izan da: gure semearenean eta Txarridunaneke zerbitzari baten ezkontzan.

### ♦ Aurtengo danborrada berezia izango da zuentzat?

**Begoña:** Batzordea lagatzeak pena emango dit, eta danborradan parte hartzen jarraituko dut.

**Juan Carlos:** Emozionatu egingo garela uste dut. Gero ez diot uko egingo danbo-

rradari eta barrilarekin, sukaldari, eskopetero... arituko naiz zerbaitetan.

**lñigo:** Herrian jende askorekin ezagutzeko aukera eman dit danborradak. Eguneko afariak ere gure arteko giroa pizten du eta hori ere berezia izango da.

### ♦ Batzorderako ondorengorik badago?

**Maribi:** Ate batzuk jo ditugu baina ezin dutela esan digute. Uste dugu norbait sartuko dela, dena eginda baitago, besteak beste jantzietan kartelak jarrita daude pertxetan. Diruzain eta idazkariak ere lan handia egin dute. Guk utzi arren eskertu nahi dugu urteotan parte hartu duen jende guztia, jotzera etorri direnak, laguntza eman digutenak. Gu batzordean ibili gara, baina aintzat hartu behar da denen lana. Gainera, esango nuke lehengo Trinitateek orain beste izan bat daukatela: danborrada.

**Begoña:** Jende saltseroa, kalea eta festa gustatzen zaiona erakarri nahi dugu.

**Ainhoa:** Jendea badago antolaketan parte hartzeko modukoa. Ni orain dela gutxi sartu naiz batzordean, eta jarraitzeko prest nagoen arren bakarrik ezin dut. Desagertzea ez nuke nahi, beraz, eskertuko nuke jendea gerturatzea.

**Juan Carlos:** Sekula ez zaio laguntza eskatu behar denbora gehiegi daukanari, ezer ez baitu egiten. Eskatzekotan saltsa guztietan sartuta dagoenari eskatu behar zaio bi minutu eduki arren horiek eman egingo ditu-eta.



## ELGOIBAR

Maiatzak 21 eta 22

### 21 ZAPATUA

**10:00-13:00** Urpekaritza bataioak. Antolatzailea: Urbizi taldea. Olaizaga kiroldegian.

**10:00-14:00** Elgoibarko baserrietan ekoiztiko produktuak salgai. Lekueder parkean.

**10:00-17:00** Elgoibarko baserrietan hazitako abereen erakusketa. Aita Agirre plazan.

**10:30** Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako trikitilarien eta txistularien kalejira.

**11:00** Kalitatezko produktuen dastaketa (euskal baserriko *Lumagorri* oilaskoa, aire librean hazitako txerrien saiheskia eta hirugiharra *Basatxerri*). Elgoibarko baserrietako sagardo lehiaketa eta dastaketa. Lekuederreko karpan.

**13:00** Herri kirol erakustaldia: Trontzan, aizkoran eta ingudearekin. Desafio mistoa: Irati Astondoa-Andoni Urrutia eta Uxue Ansorregi-Mikel Agirre. Antolatzailea: Sigma Probaleku Elkarte. Kalegoen plazan.

**14:30** Elgoibarko baserriarren bazkaria. Lekuederreko karpan.

**19:00** Nagusien danborrada, Udal Musika Bandak lagunduta. Kalegoen plazan hasita.

**23:30** Erromeria. Trikimailu. Sutegixan.

### 22 DOMEKA

#### **Trinitate Eguna**

**9:00** Diana, Udal Txistulari Taldearekin.

**10:00-14:00** Artisanu azoka. Lekuederren.

**11:00** Meza nagusia, Parrokiako abesbatzaren laguntzaz. San Bartolome parrokiaren.

**12:00** Haurren danborrada.

**17:30-19:00** Erraldoi, buruhandi eta zezenziketak, dultzaineroekin.

### ARTISANU AZOKA

#### **Beiragintza**

Igor Obeso (Iruña)

#### **Bitxiak**

Amaia Erkizia (Elgoibar)

Uxue Irigoien (Iruñea)

Naiara Ilorente (Santurtzi)

Amalur Urresti (Elgoibar)

#### **Buruhandiak**

Ipuitantai (Lezo)

#### **Egurrezko jostailuak**

Lekutxu (Gasteiz)

Kromosoma tailerra (Errenteria)

#### **Egurrezko lanak**

Felix Larrañaga (Berriz)

Bitor Arrieta (Donostia)

#### **Ehunak**

Xarlem Creations (Elgoibar)

Daniele Etxague (Antsoain)

Lorena Ibeas (Elgeta)

Zu Gehi Ni (Elgoibar)

#### **Eskulanak**

Euskan-bi (Zarautz)

Panpoxak (Zarautz)

Nieves Maidagan (Deba)

Jose Membrillera (Elgoibar)

#### **Kremak**

Lia Cortes (Aineto)

#### **Xaboi naturalak**

Ana Mosacula (Elgoibar)

La jabonera (Burguillos)

#### **Larru lanak**

E-mendi (Angiozar)

Red Masai (Arrieta)

Larrutan (Zumarraga)

#### **Margoak**

Emi Nogales (Elgoibar)

#### **Otagintza**

Iñaki Agirrezabala

(Matxinbenta)

#### **Pilotagileak**

M. Carmen Irazabal

(Munitibar)

### TRINITATEETAKO XV. AZOKA

#### **Herriko produktuak**

**Barazkiak:** Txillarre, Lizundiatxabola, Basartesoroeta (Basueta), Egigurentxiki eta Miriam Onaindia.

**Gazta:** Madarizurieta (Mausitxa), Lizundiatxabola, Mintxeta.

Segidan, koadrilen arteko jokoak.

#### **Ganaduzaleak**

Pirenaika: Aiastitxiki, Garate, Iriarte, Berdezkunde

Limusinak : Orube, Ziardatxiki

Mestizo beltza: Orube

Katxinak eta asturiarrak: Agerre Baserria

Betizukak: Irunagasoro

Enkarterialdeko astoak: Akei

Euskal Herriko mendiko zaldia: Artesoro

Appaloosa: Zaldi Erreka

Poniak: Irunagasoro

Pottokak: Irunagaberri

Sasi ardiak: Irunagasoro

Ardi mutur beltzak: Madarizurieta

Ardi mutur gorriak: Sagarraga

Berrichon ardiak: Iriarte

Ahuntz Azpi Gorriak: Irunagasoro

Ahuntzak: Uruzuno

Ahariak: Sagarraga

Txerriak: Aozar Baserria

Oilaskoak: Asier Rubio

Ahate mutuak, Gineako oiloak, indioilar beltza, antzarrak, euskal oilo zilarra eta euskal oilo marraduna: Uruzuno Baserria

#### **Sagardo lehiaketa**

• Oanagusi (Uba handi)

• Lizundia

• Armazio

• Azaola

• Zulueta

• Armuetazahar

• Upaegitxiki

• Antxola

• Olazarraga

(Olazarra)



## MENDARO

Maiatzak 20, 21, 22 eta 23

### 20 BARIXAKUA

**19:30** Kalejira Bizi Poza txarangaekin, Trinitatetik.

### 21 ZAPATUA

#### **Trinitate bezpera**

**17:00** Zuhaitza jasotzea, kanpai errepika eta txapliguak. Trinitate plazan.

### 22 DOMEKA

#### **Trinitate eguna**

**10:00** Mendaroko txistularien kalejira, Mendarozabaletik.

**11:30** Meza, Eliza abesbatza eta Ameikutzekin. Trinitaten.

**Ondoren,** Txistulariak eta Naiara eta Maite trikitilariak.

**12:30** Herri kirolak. Harri-jasotzen: Gisasola. Trontzan, lokots bitzen... Uxue, Irati, Andoni, Mikel.

### 23 ASTELEHENA

#### **Trinitate txiki**

**11:00** Meza santua, Trinitateko baselizan.

**12:00** Ikastolako haurren bertso saioa. Trinitate plazan.

**Ondoren,** Ion Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

**14:30** Herri bazkaria. Toki Alai jatetxean.

**20:30** Herri afaria (Bakailao

jana), Ion Ansorregi eta Larrañaga trikitilariarekin eta bertsoariarekin. Aizpe Elkarte. Txartelak salgai maiatzaren 22ra arte Toki Alai, Aitz-Beltz eta Txirristakan. 25 euro.

## Uxue Alberdik, Danele Sarriguartek eta Jasone Osorok mahai-ingurua egingo dute Pitzintxun maiatzaren 25ean



**D**onostia 2016ko hamabost proiekturen edukia eta gaiak aintzat hartuta, liburu-saltzaile, liburuzain eta editoreek 366 liburu gomendatu dituzte, 2016 Irakurketa egitasmoaren baitan. Hautatutako nobelak, saiakerak, komikiak, ipuinak eta poema-bildumak eskuragai egongo dira urte guztian apropos sortutako liburu-erakustokietan. Donostian egongo dira gehienak, baina Elgoibarren ere jarriko dute erakustokietako bat, Pitzintxu liburu dendan.

Egitasmoaren helburuak irakurketa

sustatzea, literaturaren inguruan lanean diharduten eragileen arteko elkarlana bultzatzea, idazlea eta irakurlea hurbiltzea eta diseinuaren alde estetikoak eta funtzionala azpimarratzea. Horretarako, proiektu orokorraren baitan, beste hiru egitasmo egingo dituzte, horietako bat da *(E)zinezko elkarriketak*, liburudendek proposatutako hainbat elkartzeko "berezi".

### Elgoibar eta literatura

Pitzintxuk egina du hitzordua maiatzaren 25erako. Jasone Osoro, Uxue

Alberdi eta Danele Sarriguartek hizketaldia egingo dute Unai Villena gidari dutela. Laurak dira idazleak eta elgoibartarrak. Mahai-inguruaren izenburua *Hiru emakume, hiru idazle: bertakoa eta unibertsalaren artekoa* da. Izan ere, ez da oso ohikoa euskaraz aritzen diren hiru idazle, eta hirurak emakumeak, egotea 11.000 biztanleko herri batean. Beraz, idazletza oro har, Elgoibar eta literaturaren arteko harremana, literatur ibilbidea, literatura eta feminismoa landuko dituzte hizketaldi horretan, besteak beste.

### Txomin Mujikaren omenezko martxa

Txomin Mujika Udal Musika Bandako zuzendariak sorpresa polita jaso zuen joan zen domekako kontzertuan. Izan ere, Guardiako bandako zuzendari Eduardo Morenok *Un Domingo de Mayo* martxa idatzi du Txomin Mujikaren omenez, elgoibartarrak eskainitako laguntza eskertzeko. Kontzertuan Elgoibarko Udal Musika Bandak martxa hori eskaini zuen estreinakoz Morenoren zuzendaritzapean, eta martxaren partiturak eta CD bat eman zizkion opari Mujikari.



### Jaime Zamakolaren margoa irabazle

Elgoibarko V. Kaleko Margo Lehiaketa egin zuten zapatu goizean Elgoibarko kaleetan eta Jaime Zamakola mendaroarrak irabazi zuen lehen saria. Zortzi margolarik hartu zuten parte eta "maila handiko" lanak egin zituztela adierazi zuten antolatzaileek. Iaz irabazle izan zen Jorge Lopez gasteiztarrak lortu zuen bigarren saria eta hirugarrena Leticia Gaspar plentziarrak. Lehiaketako lanak ikusgai egongo dira Kultur Etxeko sotoan, maiatzaren 21era bitartean, arratsaldez.





## Debarreneko orkestra sinfonikoaren kontzertua datorren barixakuan izango da



Azkenean gauzatu da ideia bat besterik ez zen hura: Debarreneko orkestra sinfonikoa. 25 musikari ditu oraingoan, tartean elgoibartarrak, baina gehiago izatea da helburua. Heldutasuna eta gaztetasuna; esperientzia eta ilusioa uztartzen ditu taldeak. Musikarien ikasketa mailak ere askotarikoak dira, ikasteka prozesuean erabat murgilduta daude batzuk, orain dela denbora asko bukatu zituzten beste zenbaitek eta badira profesional amateurrek ere. Musikaz gozatzea da orkestraren helburua eta horretarako urtean zehar bizpahiru kontzertu eskainiko dituzte era guztietako musika joaz. Eibarko Coliseo antzokian eskaini zuten estreinako kontzertua eta Elgoibarren entzungo ditugu aurki orkestraren doinuak. Maiatzaren 27an egingo dute kontzertua Herriko Antzokian 20:30ean eta sarrera doakoa izango da.

## Mendaroko Bizi Poza txarangak pozik ospatu zuten 25. urteurrena



Ez dira alperrik pasa 25 urte Mendaroko Bizi Poza txarangarentzat eta pozik egin zuten joan den zapatuan ospakizuna txaranga dabilzanek eta urte hauetan txaranga pasatutako hainbat lagunek, 32 guztira. Musika izan zuten lagun egun guztian barrena eta izan zen aspaldian ez hartu arren musika tresnak dantzan jarri zituztenak ere. Bizi Pozari Los Incansables txarangak hartu zion lekukoa eta jende mordoak ibili zen haien atzetik. Eguna bide batez taldearekin dantzan amaitu zuten.

## Ibilaldira joateko autobusa

Maiatzaren 29n Bizkaiako ikastolen aldeko jaia, Ibilaldia, izango da Durangon. Ibilaldira joateko autobusa antolatu du Elgoibarko Izarrak (Udalaren babespean). Irteera 10:00etan izango da Sigmako autobus-geltokian eta itzulera 20:00etan. Elgoibarko Izarran eman behar da izena maiatzaren 26a baino lehen. Autobusa irteerako gutxieneko kopurua 30 pertsonakoa da.

## Iñigo Zubiaurre 'Beitxi' Plazatik Gaztetxerako finalean

Bertsoa gazteengana eta gazteak bertsoaritzara hurbiltzeko helburuarekin antolatzen dute Plazatik Gaztetxera sariaketa, baina aurten Elgoibarko eta Mendaroko gaztetxeetan saiorik ez da egin. Mendarok, ordea, izan du ordezkariarik txapelketan: Iñigo Zubiaurre *Beitxi* eta finalera iritsi da, gainera. Finala bihar, zapatuan jokatuko da Mutrikun egun osoz egingo duten Plazatik Gaztetxera egunean. Eli Pagola-rekin bikotea osatuz arituko da *Beitxi* finalean beste hiru bikoterekin.

## Neskatxena Txapelketan Nerea Sasiain hirugarren

Euskal Herriko Gazteen Neskatxena Txapelketa jokatu zen joan den zapatuan Legazpin. Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako bi ordezkari hartu zuten parte finalean dantza egin zuten 30 lagun artean. Irune Arriola 12. postuan sailkatu zen eta sari bereziagoa eskuratu zuen Nerea Sasiainek hirugarren izan baitzen. Bihar Mutilen txanda izango da Erreterian Auresku Txapelketan eta Aimar Almortza, Markel Goenaga eta Gaizka Uranga izango dira Elgoibarko ordezkariak.





**M**orkaikoren Egunak jendetza batu du aurten ere. 210 lagunek osatu zuten Elgoibarko Mendi Itzuliko 38 kilometroko ibilbidea, eta (Kalegoen plaza-Idotorbe-lruiturri-Aiastia-Kalegoen Plaza). Menditik jaitzakoan, beriz, 151 gaztetok jaso zituzten Finalista Egunak diengatik. Guztira, 500 lagun inguru batu zituen Morkaikoren Egunak. Horietako askok, mendi taldeak elizako arkupeetan eskalatu zituzten. Argazki guztiak eta bideoa ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

## Concepto Egile areto futbol taldeak bosgarren postuan amaitu du Liga Txapelketa

Amaitu da denboraldia Concepto Egile areto futbol taldearentzat. Nazional Ligako Bigarren B Mailan 16 taldek hartu dute parte eta bosgarren amaitu du Conceptok, 51 punturekin. Jokatuak 30 partidetatik 17 irabazi eta 13 galdu ditu. Denboraldi osoan 96 gol sartu ditue eta 92 jaso.



## CD Elgoibarko zuzendaritzak amaitutzat eman du bere agintaldia

CD Elgoibar kirol taldeak bazkideen ohiko batzar orokorra egingo du ekainaren 23an. Lau urteko agintaldiaren ondoren, bere lana amaitutzat eman du gaur egungo zuzendaritzak, eta zuzendaritza talde berria aukeratzeko dute batzarrean. Kultur Etxeko hitzaldi gelan egingo dute batzarra, 19:00etan hasita. Urteko balantze ekonomikoa eta kirol balantzea ere aztertuko dituzte.



## Elgoibar inguruko mendiak jendez bete zituen Morkaikoren Egunak



290 ume eta nagusik osatu zuten Itzulitxoaren eguna, 2020ko dominak, urtean zehar igotako mendietan zuten bazkariarekin amaitu zuten eguna.

## Kirol Eguna egingo dute Mendaron

Arno Guraso Elkarteak antolatuta, Kirol Eguna egingo dute bihar, hilak 21, Mendaroko Herriko Enparantzan, 10:30etik 13:30era. Antolatzaileen esanetan, Mendaroko Ikastolako haur guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Antolakuntza lanak errazte aldera, izena aurrez ematea eskatu dute.

## Viento Sur igoera fasetik kanpo

Viento Sur saskibaloia taldeak ezin izan zion 14 puntuko aldeari buelta eman eta igoera fasetik kanpo geratu da. Kanporaketako joaneko partida baino estuagoa izan bazen ere, itzulerako partida ere galdu egin zuten Irunen, Irungo Don Jabugo Ensanche Erroibideren aurkako. 58-56 galdu zuten elgoibartarrak. Honenbeztaz irundarrek lortu dute mailaz igotzea eta Lurraldeko bigarren mailan jarraituko du Viento Surrek.

## Sanloko hainbat taldek partida garrantzitsuak jokatuko dituzte asteburuan

Sanloko Pneumax, Deca eta Cometel taldeentzat garrantzizko asteburua izango da Trinitateetakoak. Kadete nesken Pneumax taldeak eta Kadete mutilen Deca Espainiako txapelketaren bigarren fasea jokatuko dute; Avilesen (Asturias, Espainia) Decak, eta Sabadellen (Katalunia), Pneumaxek. Infantil nesken Grupo Cometel taldeak, berriz, Gipuzkoako Txapelketako finala jokatuko du, bihar, Usurbilgo Oiardo kiroldegian.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Ordizia 4 – Haundi 0 (Oho. erreg.)  
Elgoibar 1 – Oiartzun 3 (1. erreg.)  
Elgoibar 1 – Eibar 1 (Jubenilak)  
Lazkao 0 – Elgoibar 3 (A kadeteak)  
Elgoibar 1 – Antiguoko 2 (Oho. inf.)  
Internacional 2 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)

### ARETO FUTBOLA

Mahastiak Labastida 1 – Concepto Egile 6 (Nazional B)

### SASKIBALOA

Don Jabugo Ensanche Erroibide 58 – Viento Sur Elg. 56 (Igoera kanporaketa)

### ESKUBALOA

Lauko 36 – Leizaran 9 (Senior emak.)  
Muskiz 30 – Gabaz 23 (Senior giz.)  
C. Astigarraga GUS Sport 31 – Egia Veltins 25 (Kad. nesk.)  
Tecnifuelle 33 – Bera Bera 25 (Jub nesk.)  
Beristain Banaketak 29 – Aloña Mendi 25 (Jub. mut.)  
Aloña 21 – Pneumax Elg. 32 (Kad. nesk.)  
Deca 33 – Tekniker Eibar 29 (Kad. mut.)  
Cometel 18 – Aiala Zarauz 10 (Inf. nesk.)  
Pulpo Trapapia 22 – Dario Bus 20 (Inf. nesk.)  
Ereintza Erreterria 21 – Hotel Txarriduna 21 (Inf. mut.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21  
12:30 Elgoibar – Internacional (Infantil Txiki)  
17:30 Haundi – Euskalduna (Oho. erreg.)

### ESKUBALOA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 21  
16:30 Gabaz – Mungia Butroi EKT (Sen.giz.)  
Domeka, 22  
11:00 Hotel Txarriduna – Egia (Inf. mut.)

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 602 193 095 (Miriam)

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 612 216 458 (Selena)

Garbiketak eta etxeko lanak egiteko eta persona nagusiak zaintzeko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo orduka. 631 133 431/632 825 580

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Orduka zein interna. Erreferentziak dauzkat. 632 871550

Nagusiak zaintzen edo sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. 677 259 560

Nagusiak zaintzen edo sukaldari laguntzaile egingo nuke lan. 666 380 843

Nagusiak zaintzen ditut, orduka. Garbiketa lanetan ere aritzen naiz. 632 229 972

Adinekoak zaintzen, sukaldari laguntzaile edo portal garbiketan egingo nuke lan. Interna edo orduka. 631 132 553

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo orduka. 609 365 980

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritu eta paseora ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke, asteburuetan, orduka eta interna aritzeko prest. 631 212 497

Etxeak garbitzeko prest. Prezio interesgarria. 649 782 967

Elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Diplomatu eta informekin. 675 711 658

Adinekoak zaintzen, garbiketan edo eraikuntzan peoi moduan lan egiteko prest. 632 459 224

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Goizetik arratsaldera zein orduka. Ospitalean ere zaintzen ditut gaixoak. Ikasketak dauzkat. 671 989 434

**Eskaintzak**

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. Bidali Kurrikuluma argazkiarekin helbide honetara: [sukaldaribat@gmail.com](mailto:sukaldaribat@gmail.com)

Zerbitzaria behar da Mintxetako igerilekuko tabernarako. Ekainetik irailera bitartean. Bidali curriculuma helbide honetara: [kamareroa@gmail.com](mailto:kamareroa@gmail.com)

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali kurrikuluma [taberlan@gmail.com](mailto:taberlan@gmail.com) helbidera.

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 767 696

Etxebizitza daukat alokairuan emateko Elgoibarko Errosario kalean. Hiru gela, sukalde-jangela, egongela eta komuna. 688 650 060 (Laura)

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Logela bat edo bikoa. 602 490 595

**GARAJEAK.....**  
**Salgai**

Debako hondartzan garaje itxia salgai. Lehenengo solairuan. 655 712 021

Garajeak salgai herriko erdigunean. 648 077 832

**LOKALAK.....**  
**Salgai**

Urazandiko harategia salgai edo alokairuan dut, jubilazioa dela-eta. 943 740 884

**KINTADAK.....**

1954an jaiotako kintada ekainaren 11n. 13:00etan harrera eta luntxa Usoa tabernan. Bazkaria Sigman. 50 €.

Maiatzaren 27an baino lehen. Laboral Kutxa 3035 0007 21 0071056285

1949an jaiotako bazkaria ekainaren 11n. 12:30: Argazkia San Bartolome elizako arkupeetan. Jarraian, luncha Ibai Ondo erretegian. 14:30: bazkaria Sigma Jatetxean. Izena eman ekainaren 8a baino lehen. 50 euro sartu La Cai-xan: E558 4168 76 2100312515

**BESTELAKOAK.....**

Eraztuna galdu dut. "lker 2011-05-21" jartzen du barruan. Balio sentimental handia dauka. 677 110 531

1966an jaiotako eta Pedro Muguruza ikastetxean ikasi genuen. Argazki baten bila gabilza: eskola sasoiaren gure kurtsoa ikasleei ateratakoa. Argazki hori baldin baduzu, deitu. 650 776 861 (Rosa)

1996 urteko campingcara. 204.000 km. Turbo Diesel 2.500 cm3. 110 CV. 5,50 m. luzeera. Toldoa. Aire girotua. Bi txirrindarientzako euskarria. 3 laguntzako oheak. 5 toki homologatu. IAT-ITV 2016ko uztailea. Asegurua, 2017/03/12. Garajejan gordea. 15.000€. 688605253 (Ibon).



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
**943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Gure komunitatean hodi nagusi bat ezinbestean konpondu behar izan dute. Horretarako, etxebizitza batean, sukaldeko altzariak desmuntatu eta horma bateko azulejuak apurtu dituzte. Gainera, azuleju berdinak ez dituztenez aurkitu sukalde guztiko azulejuak aldatu egin behar izan dituzte. Jakin nahi nuke ea komunitateak ordaindu behar dituen etxe horretako sukaldean hodiaren konponketak eragindako kalte guztiak.**

**Izan ere, egungo sukaldearen zati hori jatorrian bainugela batekoa zen eta jabeak orain dela urte batzuk egindako obra baten ondorioz sukaldean integratu zuten.**

Berez komunitateak ordaindu beharko lituzke konponketak egitean etxejabearen sukaldean sortutako kalte eta galera guztiak, nahiz eta obra batzuk egin ondoren, orain sukaldearen zatia dena jatorrian bainugela izan, lan horiek bermatuta baitaude.

Kontuan hartu behar da legearen arabera jabe guztiek onartu behar dutela beraien etxe edo lokalean eraijinaren zerbitzuak eskatutako konponketa bat egitea beti ere komunitateak kalteordainak emateko eskubidearekin. Legeak ez du zehazten ordaindu beharreko kalteei buruzko modulaziorik.

**AHOLKUA:** Oro har eta salbuespenik ezean, egindako kalte eta konponketa guztiak hartzen dira kontuan, besteak beste itxurari dagozkion kalteak.

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna *Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*







Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, **Intza**, gure etxeko printzesa rubixia! 10 urte bete zenituen. besarkada etxekoen eta Izadi eta Inharren partez.



Zorionak etxeko **erreginari**. Gaur bederatzirte betet dituzu. Ondo pasau eguna ta mila muxu zureztat.



Zorionak, **Elaia**. Asteartean 6 urte handi! Ondo-ondo pasau zure eguna eta muxu erraldoi bat.




Zorionak, **Elaia**, 7. urtebetetzear, etxeko guztien partez.



Zorionak, **Ibon**. Gaur 7 urte egiten dituzulako. Familia guztiaren partez, bereziki Noraren partez.



Zorionak, **Eska-paixo**, zure Azpeitiko familiaren partez. Miriam, Ainara eta Unai-aren partez bereziki.



Zorionak, **pitxin!** Bi urtetxo in ditxuzu jada! Ondo pasau eta txintxo portau,



Zorionak, **Iker**. Larunbatean 6 urte beteko dituzu. Patxo handi bat etxekoen partez, (bereziki Ai-ert, Maia eta Iier).




Zorionak, **Gari**. Astelehenian primeran ospatu 8 urtiak! Patxo handi bat familia guztiaren partez eta ondo pasau!



Bi urte handi, **pottoko!** Zein ondo itzali zenituen kandelak! Pa bana etxeko guztien eta bereziki laiaren partetik.




Zorionak, **Unax eta aitatxo!** Asteburuan ederki pasako dugu zuen kontura. Patxo haundi bat etxekoen partez.



Zorionak, **bikote!** Bihar zuen bizitzako egun garrantzitsu bat izango da, eta gu bertan egongo gara zuekin horrela izan dadin! Muxu haundi bat lagunen partez!



Zorionak, **Mari Luz**. etxekoen partez. Musu handi bat.



Zorionak, **Maria**, zure 8. urtebetetzear, familia guztiaren partez



Zorionak **Maialen eta Xabat**, bost urte potolo... Muxu handi bat danon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

**IMH** IMHn LAN EGITEKO ESKAINTZA:  
**FABRIKAZIO MEKANIKOKO  
IRAKASLE-AHOLKULARIA**

**Eginkizuna:** Arloko ikastaroak eman eta enprekin mekanizazioaren eremuko berrikuntza proiektuetan parte hartu.

**Lanpostuaren xehetasunak** [www.imh.eus](http://www.imh.eus) webgunean.  
Bidali CVa [imh@imh.eus](mailto:imh@imh.eus) helbidera maiatzaren 27 baino lehen.

**b** **Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)  
San Francisco, 21 - Elgoibar  
Tfn. 943 740 208

**BA AL DAKIZU ENTZUMEN  
GALERARIK DAUKAZUN?  
ENTZUMEN AZTERKETAK DOAN  
HERRITIK ATERA GABE**

## 20 BARIKAKUA

**18:30** Margo eta eskultura erakusketa: Alberto Ramirez eta Jon Erratzu. Ekainaren 5era arte. Astelehenetik ostiralera, 18:30etik 20:30era. Larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:00** Argazkia, Sebas Etxaniz aske lagatzeko eskatuz. Kalegoen plazan.

**20:00** Kontzertua: Aita Donostia abesbatza. Bartolome Deunaren parrokian.

**20:00-22:00** Kontzertuak: El Bohemio, Gabi tabernan eta Carlos Javier, King Kong tabernan. Antolatzailea: Maalako lagunak.

## 21 ZAPATUA

**10:00-13:00** Urpekaritza bataioak. Izena emateko: 607 530 461. Antolatzailea: Urbizi. Olaizaga kiroldegian.

**10:30-13:30** Kirol Eguna. Taldekako kirol animatuak eta dinamikoak. Adin guztietako umeentzat. Antolatzailea: Arno Guraso Elkartea, Udalaren laguntzaz. Mendaroko Herriko Enparantzan.

**11:00** Ingeniaritza dualeko eta heziketa zikloetako informazio-saioa. IMHn.

**11:30-13:00** Erraustegiaren aurkako giza katean parte hartzeko mahai informatiboa eta txartel banaketa. Kalegoen Plazan.

**11:30** Errigorako *Eskutik eskura* kanpainaren informazio mahaia. Kalebarren plazan.

**15:30** Antzerki tailerra. Arno Guraso Elkarreak antolatuta Udalaren laguntzaz. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

**18:00** Kale antzerkia. Mendaroko Goñati pilotalekuan hasita.

**22:00 eta 23:30** Kontzertuak: Hueber eta DJ Kurro. Antolatzailea: Maalako lagunak. Maalan.

## 24 MARTITZENA

**18:00-20:00** Gurasoentzako ikastaroa: *Kultur artean elkar bizi*. Izena emateko: [kalamua@googlegroups.com](mailto:kalamua@googlegroups.com).

Antolatzailea: Kalamua Guraso Elkarrea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:00** EH Bilduren bilera, ekainaren 26ko hauteskundeak direla-eta. Kultur Etxeko Sotoan.

## 25 EGUAZTENA

**18:00-20:00** Gurasoentzako hitzaldia: *Interneten arriskuak eta aukerak gaztetxoentzat*. Hizlaria: Iñaki Lakarra, Hueziko irakaslea. Antolatzailea: Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseilua. Ikastolako Moru gelan.

**19:00** *(E)zinezko elkarrizketak* mahai-ingurua: Jasone Osoro, Uxue Alberdi eta Danele Sarriguarte idazleak. Gidaria: Unai Villena idazlea. Pitxintxu liburu-dendan.

## 26 EGUENA

**17:00** Ipuin kontalaria: *Ni ez naiz izan*. Amaia Arriaran. HH5ekoentzat. 17:30ean LH1ekoentzat. Gotzon Garate Udal liburutegian.

## 27 BARIKAKUA

**20:30** Kontzertua: Debabarreneko orkestra Sinfonikoa. Herriko Antzokian.

BENETAKO BIZITZARAKO  
HIPOTEKARIOAK

**EURIBOR  
+ % 0,85**

Lehen urteko ITNa: %1,30.  
UTBAldakorra: %1,229\*

**CA** bankoa  
CREDIT AGRICOLE





## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Altamira'

20 Barixakua, 21:30  
 21 Zapatua, 19:00 eta 22:15  
 22 Domeka, 19:00  
 23 Astelehena, 21:30



### 'Tini: el gran cambio de Violetta'

22 Domeka, 16:30

**Zuz.:** Hugh Hudson. **Espainia, 2016. 97 min. Drama, biografikoa. Aktoreak:** Antonio Banderas, Rupert Everett, Golshifteh Farahani, Pierre Niney, Nicholas Farrell, Henry Goodman, Irene Escolar, Clément Sibony, Tristán Ulloa. 1897an, arkeologo zaletu batek, Marcelinoi Sanz de Sautuolak (Antonio Banderas), eta bere 8 urteko alaba Mariak historiaurreko aurkikuntza garrantzitsua egin zuten Kantabrian: Altamirako pinturak. Ohorea eta ospea lortu beharrean, Marcelinok gatazka izan zituen Eliza Katolikoarekin eta zientzialarien komunitateak baztertu egin zuen, aurkikuntzaren egiazkotasuna frogatzen saiatu arren.

**Zuz.:** Juan Pablo Buscarini. **Argentina-Italia, 2016. 96 min. Musikala eta komedia. Akto-reak:** Martina Stoessel, Jorge Blanco, Clara Alonso, Mercedes Lambre, Ángela Molina. **Ko- media, erromantikoa, musikala.** Nazioarteko bira batetik itzultzean albiste garrantzitsuak jasoko ditu Violetta. Bidegurutze batean dagoela sentituko du, eta aurretik ezagututako guztia zalantzan jartzen hasiko da. Bere bidean aurrera egiteko bere barneko ahotsa topatzeko ahalgina hastean, bidaiari bat egiteko proposamen bati baietz esango dio. Ezusteko bidaiari horrek erantzun bila eramango du munduaren beste puntaraino.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

#### 09:00 - 22:00

20 Barixakua FERNANDEZ  
 21 Zapatua ETXEBERRIA  
 22 Domeka ETXEBERRIA  
 23 Astelehena FERNANDEZ  
 24 Martitzena YUDEGO  
 25 Eguaztena ORUESAGASTI  
 26 Eguena BARRENETXEA  
 27 Barixakua IBAÑEZ

#### 22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara  
 ETXEBERRIA (Elgoibar)  
 Santa Ana, 1  
 Tel.: 943 740 140

#### 00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
 Fermin Calbeton, 19  
 Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
 Garagartza (Mendaro)  
 Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
 Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
 (Soraluze) - Tel.: 943 751 384

## Telefono interesgarriak

Larrialdiak.....112

### ELGOIBARKO UDALA

Udaltzaingoa.....943 741 394  
 Arreta bulegoa.....943 741 050  
 Idazkaritza.....943 743 700  
 Bake epaitegia.....943 741 630  
 Gizarte Ongizate Saila.....943 741 008  
 Hirigintza.....943 744 384  
 Artekaritza.....943 744 414  
 Berdintasun Saila.....943 741 050  
 Euskara Saila.....943 744 366  
 Kultura Saila.....943 742 158  
 Udal liburutegia.....943 743 525  
 Haur eta Gazteria Saila.....943 531 319  
 Ludoteka.....943 748 883  
 Gazteleku.....943 743 228  
 Garapen Ekonomikoa.....943 741 050  
 Emugi.....943 747 371 / 688 684 633

Kiroldegia.....943 744 415  
 Mintxeta.....943 747 356  
 Musika eskola.....943 742 145  
 Udal euskaltegia.....943 742 731  
 Eguneko zentroa.....943 744 565  
 Kontsumo bulegoa.....943 743 088  
 Jubilatuen biltokia.....943 740 526  
 San Lazaro egoitza.....943 740 296

### MENDAROKO UDALA

Mendaroko Udala.....943 033 282  
 Liburutegia.....943 033 291  
 Bake Epaitegia.....943 033 289  
 Eguneko Zentroa.....943 031 746  
 Mendaro Ikastola.....943 756 141  
 Haurtzaindegia.....943 755 219  
 Musika Eskola.....943 244 275  
 Taxia.....607 57 57 28  
 Ospitalea.....943 032 800

### BESTELAKOAK

BARREN.....943 744 112  
 Elgoibarko Izarra.....943 741 626  
 Gurutze gorria.....943 743 864  
 Itxaropen telefonoa.....900 840 845  
 Mankomunitatea.....943 700 799  
 Debemen.....943 744 067  
 Gipuzkoako Ogasuna.....902 100 040  
 AEK euskaltegia.....607 601 423  
 KZgunea (Elgoibar).....943 023 640  
 KZgunea (Mendaro).....943 756 013  
 Taxi geltokia.....943 740 898  
 Eusko Tren.....902 543 210  
 Lurraldebus (Mugi informazioa) .....943 000 117  
 Lurraldebus (Lineak) .....943 415 208  
 Jokalari anonimoak .....657 710 156  
 Alkoholiko anonimoak.....629 141 874  
 Correos - Posta.....943 741 547



**Manu Sanchez**

## Unai Villena



ogela ezezagun batean esnatzen nintzen eta argiak itzaltzen nituen iluntasunak isiltasuna areagotuko zuelakoan, arrotza ezagun bihurtzeko saiakeran. Gavero esna gelditzen nintzen dokumentalen bat irakurtzen edo libururen bat ikusten, barruko harra ere elikatu behar da eta. Hankak aldrebes neuzkan garai hartan, nahasita bezala. Hilabeteak eta urteak gurutzatzen zitzaizkidan poltsikoetan, eta ahal

nuena egiten nuen, egutegiari egunak aurrezten beti. Sukaldean anabasa artean egiten nuen lo, oso goiz lokartu eta erdi esna iritsita etxera ordu txikietan, eskale eskola eskola soinean; parranda erruz eta lanik batera ez... Ondo pentsatuta, erabat zentzugabea iruditzen zait garai hura deskribatzen duen hitz-jario hau. Eta oro har, garai hartako bizitza. Eskerrak denbora aurrera doan eta gu harekin. Eskerrak udaberriko loreen ez tandaren indarrak negu eta garai beltzak ahantzarazten dizkigun. Eskerrak orainean bizi garen.

*“Eskerrak udaberriko loreen ez tandaren indarrak negu eta garai beltzak ahantzarazten dizkigun”*



# Gremioen gida

Aroztegiak  
Elektrizitatea  
Igeltseritza  
Iturgintza  
Leihoak  
Pintura

## AROSZTEGIAK

**iraolagoitia**  
aroztegia · altzariak · ehze-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

[www.iraolagoitia.com](http://www.iraolagoitia.com)

**MAR**  
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheha  
943 531 471  
609 054 978  
[carpinteriamar@hotmail.com](mailto:carpinteriamar@hotmail.com)



**BIENA S.L.**  
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax: 943 743 116  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)



Aroztegia Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

[asimaaroztegia@gmail.com](mailto:asimaaroztegia@gmail.com)

**Ulazia**  
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



## ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**  
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara  
943 530 358

[iparelek@gmail.com](mailto:iparelek@gmail.com)  
[iparelek@iparelek.com](mailto:iparelek@iparelek.com)

**ELECTRICIDAD**  
**AZPELETA**  
San Frantzisko, 51  
Elgoibar  
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA,**  
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B  
Elgoibar  
[karranzaj@gmail.com](mailto:karranzaj@gmail.com)  
Tel.: 943 741 280  
Jose Luis: 626 555 899

**electricidad**  
**PEROSANZ**

[www.electricidadperosanz.com](http://www.electricidadperosanz.com)  
[eibar@electricidadperosanz.com](mailto:eibar@electricidadperosanz.com)

Ibargain 17. AC beheha  
Tel.: 943 202 298  
Fax: 943 205 045  
20500 EIBAR

Herriko Erparantz 5  
Tel.: 943 033 935  
20850 MENDARA

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.  
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC  
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345  
Raimon: 677 512 462  
Bulegoa: 943 200 697

## IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**  
ERREFORMA ETA LEIHOAK  
Urasandi, 22 beheha - Elgoibar  
Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko  
koordinazioa.  
Pladurarekin ere  
lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA**  
**CAMILLO**  
**ALVAREZ**

Jardiñeta, 25 beheha  
EIBAR

Ernesto: 620 060 104  
Fran: 600 465 789

## ITURGINTZA

**SANTANA**  
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheha  
Elgoibar  
943 740 530 / 605 714 905  
[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

**PAGOERROTA**  
**ITURGINTZA**  
Herriko Erparantz, 10 beheha  
MENDARO  
943 75 60 44 / 628 529 692  
Faxa: 943 75 60 37  
[pagoerrotaiturgintza.com](mailto:pagoerrotaiturgintza.com)  
[www.pagoerrotaiturgintza.com](http://www.pagoerrotaiturgintza.com)

**ongi** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523

[ongi@ongielgoibar.com](mailto:ongi@ongielgoibar.com)  
[www.ongielgoibar.com](http://www.ongielgoibar.com)

**FONTANERÍA**  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheha B  
Elgoibar  
Floren Cid: 647 463 436  
[ibamar@euskafnet.net](mailto:ibamar@euskafnet.net)

## TELLABIDE

ITURGINTZA



Azpilgoeta 7 beheha - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
[iturgintzatellabide@hotmail.com](mailto:iturgintzatellabide@hotmail.com)

**ZUBIZARRETA**  
instalazioak

Ubitarte plaza, 5 beheha  
Elgoibar

943 740 789  
650 586 144



**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Urzuzo, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
[bienda@pagoagasa.com](mailto:bienda@pagoagasa.com)  
[www.pagoagasa.com](http://www.pagoagasa.com)

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
[taller@pagoagasa.com](mailto:taller@pagoagasa.com)

ELGOIBAR

## LEIHOAK

**LODOSO**  
**LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223  
[lodosof@gmail.com](mailto:lodosof@gmail.com)  
Tel.: 943 74 34 90

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

[biok@biokdekorazioa.com](mailto:biok@biokdekorazioa.com)

Gremioen  
gida



# FAMILIA EGUNA

IDOTORBE AUZOAN  
MAIATZAK<sup>29</sup>, DOMEKA

10:30ean mendi martxa Idotorbera

12:00etan mokadutxo

12:30ean jolasak familian

13:30ean bazkaria

15:00etan trikitilariekin dantzaldia

16:00etan Niala magoa

17:00etan merienda partekatua  
(etxeko errezeta gozoak ekarri)

**DOAN**

(Izen ematea: Ludotekan,  
Elgoibarko Izarran edo  
[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)  
web orrian.

